


KULTUR GAIA: ARIZMENDIARRETARI BURUZKO BIDEOA

Arrasate

1996ko
Apirilak 3
315. zenb.

UP RE SU SU



INTERNET

KIROLAK
Zaldibarko
futbito
txapelketa

IRITZIA
J.M.
Astigarraga

FOTOZAHARRA
Aste Santuak



INKESTA: ASTE SANTUAN NOBA?

EZ HABIL TXIKIKERIATAN

Saxo



Citroënaren betiko berezitasunak mantentzen jakin duen autoa: egonkortasuna, segurtasuna eta konforta.

SEGURTASUNA

- ABS • Airbag • Bihurguneetan direkzioaren kontrol egokia zihurtatzen duten barra finkatzaileak • Blokeoa eta aurretentsore piroteknikodun aurreko segurtasun gerrikoa • Zeharkako segurtasunerako super estruktura indartzen duen eraztuna • Golpeen xurgatzaileak diren alboko ateak, deformazio progresibodunak

EKIPAMENDUA

- Direkzio lagundu elektrohidraulikoa • Insonorizazio sistema • Habitagarritasun maximoa • Alboko uztarri indartua duten jezarlekuak • Gida postuen ergonomia jakituriaz ikertua • 280 dm³ duen maletegia

GAMA

- Bost motoredun gama: 1.1i [60 zaldi], 1.4i [75 z.], 1.6i [90 z.], 1.6i 16v [120 z.] eta sei bukaera desberdin: X, SX, VSX alde batetik eta VTL, VTR, VTS bestetik.

EKOLOGIA

- Zarataren emisioan onartua dagoen 75 db. baino gutxiagora mugatzen duen aravaren betekizuna • Material birziklagarriak

**ZATOZ ETA PROBA EZAZU
APIRILAREN 9tik AURRERA!**



Chapime Tailerrak

Araba Etorbidea, z/g. Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22. ARRASATE

Elizkizunak motz edo luze

Direla urte batzuk, Gabon bezperan, bihotzekoak jota, ohean hilotzik aurkitu zuen bere amak nire gazte garaiko lagun mina. Zirrara handia sortu zuen herrian. Eliza atez kanpo beteta zegoen. Hiletak hunkigarriak izan ziren eta luzeak: ordubete pasa.

Bildu zen jendetza eta hiletaren luzeera komentatzen ari ginen sakristian, kanpoan txistulariak eta dantzariak ari ziren bitartean.

Bat-batean herriko apaizak, Meza Santua lagundu zuten 20 urteko bi gazteei dei egin eta galdetu zien:

- Zer deritozue, hiletak luzeak edo motzak izan behar dute?

Bietako batek, burua makurtuz eta, apaiz artean urduri, erantzun:

- Ba... gauza bakoitzak bere denbora behar du.

Irteera iheskorra izan zitekeen, baina niretzat ez zen horrela izan. Bihotzetik atera ziztzaion, bere euskaldun baserriar senetik.

Gazte haren erantzunari behin baino gehiagotan eman dizkiot bueltak nire buruan. Eta arrazoi osoa zuela deritzot. Sendo eta bihotzez egiten diren gauzek bere denbora behar dute.

Heriotza, familiaren samintasuna, herriaren sentipenak, ez dira huskeriak, sakon sakoneko bizikizunak baizik. Eguneroko bazkaria, lantegiko ordutegiak estutzen gaituela, presaka egin daiteke, baina familiako eta lagunarteko ospakizun bazkariaek ez: bere denbora behar dute.

Elizkizunak, hiletak edo igandeetako kristau batzarra, Meza Santua, berdin. Ez dira huskeriak, ospakizunak dira. Ez dira kunplimentuak, bizikizun sakonak baizik, eta bere denbora behar dute.

Badator Aste Santua, Kristo eta kristauen bizitza-heriotza misterioaren ospakizuna, gure izanaren eta izaeraren muin-muina barne-barnetik bizitzera deitzen gaituen astea. Bizitzaren sena eta barne-indarra Ebanjelioan eta sakramentuetan aurkitzen dutenek, patxadan eta lasai, presa handirik gabe, Aste Santuko elizkizunak ospatuko dituzte, bizi-iturri baitira beraiantzat, eta behar duten denbora emango diete.

Ez dakit zein izango den zure asmoa; nik nirea garbi daukat. Dena dela, Ongi pasa Aste Santua.

SAGARRAGA

JOSE MARI ASTIGARRAGA.



ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera) Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

Memesa

79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Golekoa, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).


ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Azala: Goio Arana

TeleAzoka



Apirilaren 18tik aurrera
zure iragarkiak **merke-merke**
teletestuan.

Astero astero iragarki berriak!

 **TB**
ARRASATE


Informazioa: **77 08 15**

Zer egingo duzu Aste Santuan?



Maite Barandiaran
Ikaslea
(16 urte)

Institutoan ikasten dut eta Holandara goaz ikasbidaian. Astebete egongo gara Holandan.



Iñigo Gutierrez
Ikaslea
(20 urte)

Hemen geratu. Herrian geratzen garen lagunok pentsatuko dugu zer egin. Zerbait eginez gero ez gara aspertuko.



Ruben De Palacio
Ikaslea
(22 urte)

Zamorara joango naiz, eta han ikasi egingo dut. Ikasgai batzuk gaintitu gabe ditut, beraz ikasi egin behar!



Naiara Arkauz
Ikaslea
(12 urte)

Beti moduan Arrasaten geratu. Lagunekin bildu eta jolasean pasako ditut jai eguna.



Jose Maria Arnaiz
Langabetua
(32 urte)

Beti moduan Galiziara joango naiz. Han ederto pasatzen dut.



Nieves Miguel
Langilea
(34 urte)

Hemen geratu, baina irten-go naiz kanpora. Eguraldi ona egiten duenean mendira, eta Errioxara edo Donostiara ere-joango gara.



Mikel Altuna
Ikaslea
(22 urte)

Beti moduan azken orduan pentsatuko dut zer egin. Astebeteko oporrak ditut, ikusiko dut zer egin.



Lurdes Arrate
Etxekoandrea
(59 urte)

Herrian geratu, eta ohiturari jarraituz arratsaldetan mezetara joango naiz. Gusto-
ra geratzen naiz Arrasaten.



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almagena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE



Leber Tapizariak

- Altzari klasiko eta modernoa
- Konponketa eta tapizatuak
- Tapizagintza orokorrean

TAILERRA: Urteaga kalea, 6 behea. Tfnoa: 76 50 37 • BERGARA
HELBIDEA: Olarte kalea, 16. Tfnoa: 79 01 18 • ARRASATE


“Por Razones de Seguridad”

Ez da presoei bidalitako eskutitzak bueltatzen dituzten lehen-dabiziko aldia, baina bai modu honetan bueltatzen dituzten lehenengo aldia. Sobrearen atzealdean “Por Razones de Seguridad” idatzi eta denborapasak, argazki bat eta lagunen agurra zuen eskutitza atzera bota dute.

Egoera nola dagoen ikusita, presoei idazten jarrai dezatela eskatu nahi nieke arrasatearrei, eurekin komunikazioa izatea oso garrantzitsua da-eta.

Argazkian, gutuna zelan bueltatu ziguten ikus daiteke.

V.G.



OHARRAK

Arrasate Pressik ez hilaren 19ra arte

Aste Santuko oporrak direla eta ARKOko langileok, beste askok bezala jai hartuko dugu. Beraz, ez duzue Arrasate Press berririk irakurtzeko aukerarik izango hilaren 19 arte. Ordura arte, ondo izan!.

Gutunen arauak

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzeailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

Zehaztapen batzuk

313. zenbakian Gaztetzeari buruz idatzitako artikuluan, honako zehaztapen hauek egin nahi ditugu:

- Artikuluaz agertutako datuak pertsona baten izenean eman ziren baina pertsona horrek Gaztetzeko osoaren izenean hitzegiten zuen.
- Argazki-oinean Psilicon Flesh taldea gaztetzera etortzekoa dela esaten zen baina momentuz ezin da kontzertu hori ziurtatu.
- Gaztetzeko kontzertuak, bertako kontzertuen antolamendu araudia beteaz gero, edo-nork antola ditzake.
- Gaztetzeko ez da bi zatitan banatu bertako arduradunek ez dutelako erabaki hori adostu oraindik. Dena den, zatiketa hori egingo balitz, ez luke inolako obren beharrik izango.
- Kontzertuak 12etarako amaituta egon daitezzen ahalegintzen badira ere, bizilagunen alde-tik kexuak egon daitezkeenaren ardura gaineratzen dute.

USTEAK USTE

EGUN APROPOSAK

Aste Santuko Erramu Igandean aurkitzen naiz zutabe hau betetzeko asmoz lanean jarri naizenean. Aste handia, urteko garrantzitsuenak, zergatik?

Alde batetik, kristauok kristoren pasioa, heriotza eta berpizkundea gogoratzen ditugulako. Burura datoztik aintzinako sermoiak eta prozesioak, eta, nola ez?, ostiralean eta goizeko seiretan hasita herriko elizetara egiten genuen bisita. Familia osoak irtetzen ziren, aitajauna, amandrea, ume txikiak barne. Urtean zehar bazeuden, noski, beste une eta okasio batzuk denok elkarrekin egoteko. Hura bai garai polita.

Bestetik, hor dugu Aberri Eguna. Nola ahaztu garai bateko Aberri Eguna! Hamaika oztopo pasa behar hona edo hara heltzeko: mendiz eta auskalo zein bide hartu behar helburua lortzeko! Edo Arrasate bertan eginiko deiari erantzunez, herriko enparantzan erakusten genuen batasunaren indarra. Baturik jokatuz gero asko lor genezakeela esaten genuen. Zeharo desberdinak urte haiek, abertzaleen batasunarenak.

Hainbat urte pasa ondoren ezin esan, ordea, batasun, elkarbizitza eta konfidantzazko giroan bizi direnik hainbat eta hainbat familietan. Hitzegiten al da beharko litzatekeen adina? Familia giroan hori gertatzen bada, hobe ahaztu herrian ikusten duguna. Non dago herriak eskatzen digun batasuna, edo gutxienez batasun hori lortzeko behar dugun borondatea?

Badugu, bai, zertaz pentsatu egun hauetan...

J.R. ELORTZA

• **Txitxinpe** •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atepak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguaitorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna 4

10ak arte: Corcuera. Musakola Egunez eta gauzez: Camacho. Bergara.

Ostirala 5

10ak arte: Amezuza, Santamaina Egunez eta gauzez: Puy. Bergara.

Larunbata 6

10ak arte: Morales, San Andres Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara.

Igandea 7

10ak arte: Corcuera, Musakola Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara.

Astelehena 8

10ak arte: Amezuza, Santamaina. Egunez eta gauzez: Estella. Bergara.

Asteartea 9

10ak arte: Español. Iturriotz. Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara.

4 OSTEGUNA

• **ZINEA**
 "Smoke" 7etan eta 10etan.

• **OSTEGUN SANTUA**
 Mezak: Arratsaldeko 6etan S. Juan Bautista eta San Andresko elizan. 7etan Santa Teresa eta Santamainako elizetan. 8etan Uribarrin.

11 OSTEGUNA


• **HIRU HANDIAK AEDkin**
 Hiru handiak hiru egunetan (Aitzgorri, Anboto eta Gorbea) AEDk antolatuta apirilaren 13a arte.

ARRASATE IRRATIA ASTE SANTUAN

Aste Santuan jai hartuko du Arrasate Irratiak. Hurrengo astean, Pazko astean, normaltasunez emango dira irratiaioak baina ez da gaueko emisiorik egongo.

GALIZIARREN EGUNA

Apirilaren 12, 13 eta 14an Do dia da Galizia eguna ospatuko da Arrasaten. Ostiralean arratsaldeko 6etan jaien hasiera eta luntx berezia. Gauean "Mundo noche" taldearekin dantzaldia. Larunbata: 10etan Eibaroko gaitero eta dantzariekin kalejira Zigarrolatik Udaletxera. 12etan Asunzioneko Gure Amaren elizan meza. Ordu batean San Andresko plazan gaitero eta dantzariak "Los Galaicos" taldeen eskutik. Igandea: 11etan folklore dantzak gaitero eta dantzari taldeekin. Arratsaldean berena "Pasadena" taldearekin.



5 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Smoke" 5etan, 7.30etan eta 10etan,

• **OSTIRAL SANTUA**
 Gurutz bidea goizeko 8etan Santa Barbara eta Portaloian. 11etan aitortzak San Juan bautista elizan. 11etan Gurutz bidea Uribarri eta Santamainan eta 12etan Santa Teresan.

• **DOKE TXAPELKETA**
 Elkarteen arteko doke txapelketa Monterronen goizeko 10etan. Irabazleek zinegotzien kontra jokatuko dute 12ak aldeara.

7 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Alarma nuclear" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **PAZKO GAUBEILA**
 Mezak: arratsaldeko 8etan Santa Teresan. 9.30etan San Frantziskon eta 10etan San Juan Bautista, Uribarri, San Andres eta Santamainan

• **ABERRI EGUNA**
 - Euskal Herriak askatasuna lemapean HBk deituta Aberri eguna Hendaian. Autobusa Garibaitik goizeko 10etan.
 - EAK Aberri eguna dela eta, bazkari bat antolatu du Donostiako Josean Gaska kiroldogian. Interesatuok Arrasateko Alkartetxera zuzendu.

PERKUTSIO IKASTAROA GAZTETXEAN

Astelehenero arratsaldeko 5etatik 7etara. Instrumentu guztiak. Ez da beharrezkoa izena ematea, GAZTETXERA joatearekin nahikoa da.

ASTE SANTUKO EGUTEGIA MUSAKOLAKO KIROLDEGIAN

Apirilaren 4, 5, 6, 7 eta 8an Musakolako kiroldogian goizez bakarrik egongo da zabalik. Iturrieko Kiroldogia bestalde Aste Santutan itxita egongo da.

1961eko KINTOEN BAZKARIA

Apirilaren 20an 1961eko kintoek bazkaria izango dute. Goizeko 12.30etan San Frantzisko elizan meza eta ondoren Amaika Gazte elkarteak bazkaria. Informazio gehiagorako harremanetan jarri Angel Lasagabaster "Kuku", Angel Ayañi, Mario Ugarte edo Enrique Delgadorekin.

TAILA IKASTAROA

Apirilaren 15etik aurrera taila ikastaroa Arrasateko Tailaginen elkarrean. Hasierako maila. Izena emateko deitu gualdean 79 4079 (Felix) eta 79 67 64 (Imanol) zenbakietara. Arrasateko Tailaginen Elkarteak antolatuta Udalaren laguntzaz.

ERAKUSKETA


Apirilaren 15etik 21era Animalien babesaren aldeko erkusketa Monterronen. Orduetgia: Egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

Senideak-en anagrama onartu

Joan den ostiraleko ple-noan onartu egin zen Uda-letzeko balkoian Senideak-en anagrama jartzea. EAJ, PSE-EE eta PPko zinegotziek aurka bozkatu bazuten ere, alka-tearen kalitatezko botoare-kin aurrera atera zen propo-samena. EAJko bozeramale-ak esan zuenez, presoak Eus-kal Herrira ekartzearen alde daude baina ez dute uste Uda-letxea anagrama jartzeko tokia denik. PSE-EEkoak eskaria egitea ondo iruditzen zitzaiola, baina orain arte bes-te pankarta batzuk eskaria egin barik jarri direla eta jarrera horrek horretan jarrai-tuko duela uste dutenez aur-ka bozkatuko zutela esan zuen. Arrasateko Senideak-ek atera du "Euskal Presoak Euskal Herriratu arte" dioen anagrama.

Aste kulturala Institutuan

Ostiraletik asteartera bitar-tean aste kulturala ospatu zuten Insitututoko ikasleek. Goizean bi orduz eskolak



Eskola Politeknikoak diplomak banatu zituen

1995ean industri injineru teknikoko ikasketak buka-tu zituzten 137 ikasleei, eta goi mailako injinerutza buka-tu zuten 13ri diplomak banatu zien Eskola Politekni-koak. Jose Agustin Arrupek, injinerutzako zuzendariak, ikasleek egindako lana goraiatu zuen. Ondoren Manuel Quevedok, MCCko kalitate eta garapenerako zuzenda-riak, hitz batzuk zuzendu zien ikasleei. Ikasleak ezezik, horien guraso eta familiartekoak ere hurbildu ziren eki-taldira.

eman ondoren, ikasleek ekint-za desberdinetan parte hart-zeko aukera izan zuten. Joan den zapatuan, berriz, mendi irteera egin zuten eta hainbat ikasle eta irakasle Degurixa-ra joan zen. Aspaldiko urtee-tan egiten dute aste kulturala Institutuan.

Ibilaldi neurtua San Viatorren

Asteartean eguraldi txarra egin zuen arren, antolatuta zegoen moduan San Viato-rreko 7. eta 8. mailako ikas-leek ibilaldi neurtua egin zuten. Eskoriatzako auzoeta-tik abiatu, Aretxabaletako bes-

te zenbait auzo bisitatu, eta ondoren Arrasaten bukatu zuten ibilaldia. Lehenengo aldia da San Viatorren ibilaldi neurtua antolatzen dela.

Erramu zapatua

Arrasateko hainbat lagun hurbildu zen Bergarara zapa-tuan. Erramu zapatuko feria egin zela eta, batzuk feria ikustera joan ziren baina bes-te batzuk produktuak era-man zituzten. Arrasateko baserritar batzuek, adibidez, behiak jarri zituzten erakus-gai.

JAIOTZAK

- Melanie Concepción Granado. Martxoaren 26an.
- Nerea Dorransoro Murgiondo. 28an.
- Markel Bazanbide Dominguez. 28an.

HILDAKOAK

- Jose Cruz Martiarena Sanz. Martxoaren 23an. 78 urte.
- Ramona Arruabarrena Sasiain. 24an. 71 urte.




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

LABURRAK



Hasierako planak aldatu, eta INEM erakundea Arrasate Pasealekuan kokatu nahi da.

Mankomunitateari geltokiko eraikina eskaini dio Udalak

Bulegoak tren geltoki zaharrean kokatzea proposatu dio Arrasateko Udalak Mankomunitateari. Hasiera batean eraikin horretan INEM erakundea kokatuko zela uste bazen ere, enplegu erakundea gaur egun Mankomunitatea dagoen tokian, eta azken hori geltokiko eraikin berrituan kokatzea proposatu du Udalak.

Ostiraleko plenoan alkateak jakinarazi zenez, INEMi eman diote proposamenaren berri eta enplegu erakundeak begi onez ikusi du. Orain, Mankomunitatearen erantzuna jakitea falta da.

Jose Mari Loiti, Mankomunitateko lehendakariak adierazi duenez, "oraindik ez zaigu proposamena iritsi eta beraz, ez dugu aztertu baina proposamena ondo iruditzen zait. Geltokiko eraikina hobea da, baina ikusi egin behar-

ko da zein baldintzetan eskaintzen digun Udalak. Eraikinean, gainera, inbertsio batzuk egin beharko direnez, aztertu egin beharko da inbertsio horiek zenbatekoak izango diren".

Xabier Zubizarretaren ustez, geltoki zaharrraren ondoan Mankomunitateko beste zerbitzu batzuk daudela kontuan izanik, Lanbide Eskola adibidez, egokia litzateke eskualdeko Mankomunitatea ere bertan kokatzea. Era horretan, zerbitzuak toki berean biltzea lortuko litzateke. Eskualdeko Mankomunitateak baiezkoa ematen badu, lehenbailehen landutako proposamena abian jartzeko pausuk emango dira.

Tren geltokiko eraikina eta Mankomunitateak Arrasate Pasealekuan duena Udalarenak dira, baina erabilpenagatik errenta ordaintzen diote Udalari.

Dirulaguntza eskaera

Udalaren Pertsonal Sailak Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatu dio, lanerako prestakuntza ikastaroak antolatzeko. Udalak bost ikastaro desberdin antolatuko ditu lan-gabezia daudenendako.

Markoaldetik Monterronerako sarbidea itxi

Monterron parkean kalte asko egoten dela eta, Udalaren Zerbitzu Sailak Markoaldetik parkerako sarbidea istea eskatu du. Hirigitza Sailaren ustez, berriz, Markoaldeko etxeak egin dituen promotorak egin beharko luke lan hori. Horregatik, hirigintzatik eskari hori luzatuko da.

Ikurriña jartzea eskatu

Aberri egunean etxetako balkoi eta leihoetan ikurriña jartzea eskatu du HBk. Bestalde, Udaletxeko balkoian ere ikurriña jartzea proposatu zuen EAk ostiraleko plenoan. Urtero moduan Udaletxean ere ikurriña jarriko dela esan zuen alkateak.

Gasteiz-Eibarri buruzko informazioa bidali

Udalak eskatu bezala, Gipuzkoako Diputazioak Gasteiz-Eibar proiektuaren inguruko informazioa bidali du. Alde batek dokumentazio grafikoa bidali dute, planoak, mapak... baina bestalde idatzizko dokumentazioa ere bai.

Informazio horren arabera, idatzizko proiektuak egitea adjudikatu berri dute eta proiektu horiek urte amaierarako bukatuta egongo dira. Autobideak hiru

zati izango dituzte, bakoitzaren idazketa enpresa batek egingo du. Gasteizetik Eskoriatzara doan zatia Euroestudios enpresak egingo du.

Ondoren proiektuak jendaurrean jarriko dituzte, eta jarraian, errepedea egiten hasteko obra adjudikatuko dute. Finantziarioa lortuz gero, 97ko bukaeran errepedea egiten hastea espero dute, eta gauzak ondo joanda lau urte baino gehiago

iraungo dute obrek. Beraz 2.002. urterako Gasteiz-Eibar bukatuta egongo litzateke.

Diputazioak ez du argitu oraindik, errepedea San Josepetik pasako den ala ez. Udalak hori argitzea eskatu zion Diputazioari, toki horretan industrialdea kokatzeko asmoa du-eta. Idatzizko proiektuak gertu izandakoan ikusiko ei da San Josepetik pasatuko den.

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Bigarren Faseko
6. ihardunaldia.*
- *Sailkapenak eta emaitzak.*



Bosgarren ihardunaldi a jokatu denean hiru taldek hirugarren

faseko txartela lortu dute dagoeneko: A taldeko Argi Ibili eta Dko Adelaida Haizea eta Insert Coin. Beste batzuk hanka erdi sartuta dutela esan daiteke, Totem, Irati STS, Sokoakoak, Perrahotsa adibide batzuk emateagatik. Orain berriz, bi neurketa baino ez dira falta jokatzeko. Dena dela, esan behar da datorren astean Aste Santua dela eta, Zaldibar Txapelketak eten bat egingo duela eta apirilaren 13-14 astebukaera arte ez da berriro baloia jokuan jarriko. Orduan sailkatzeko aukera duten taldeak ezingo dira lokartu eta kantxan duten onena ematen saiatu beharko dira. Izan ere, hainbat taldeentzat bi neurketa horietako emaitzak nahi eta nahiezkoak izan daitezke txapelketan aurrera egiteko.

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	5	5	0	0	26	8	10
Perrahotsa	5	3	1	1	15	12	7
Okoretegi Tab	5	3	1	1	20	15	7
Hirei	5	2	1	2	12	14	5
Kamasutra	5	2	0	3	24	20	4
Txeyenex	5	2	0	3	11	19	4
A ti que te importa	5	1	1	3	18	21	3
Zotz Motz	5	0	0	5	17	36	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Ac Surcos	5	3	2	0	19	14	8
Sokoakoak	5	3	1	1	23	14	7
Fosforos	5	3	1	1	21	18	7
Cerv Leintz	5	2	2	1	15	17	6
Nuebo taberna	5	2	0	3	27	24	6
Los heredia	5	2	0	3	19	21	4
Orlando piratas	5	2	0	3	18	19	4
Lautherbrunen	5	0	0	5	15	37	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida haizea	5	3	2	0	21	9	8
Insert Coin	5	4	0	1	19	17	8
Arrasate Kirolak	5	2	2	1	22	15	6
MSM Ing Int	5	3	0	2	18	17	6
Pub people	5	1	2	2	15	19	4
Arrogoi Tab	5	1	1	3	16	19	3
Danok lagun	5	1	1	3	16	15	3
DKB	5	0	2	3	17	23	2

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Totem	5	4	1	0	27	15	9
Irati STS	5	3	1	1	16	13	7
Betrayer	5	3	1	1	23	16	7
Trikiti	5	3	0	2	17	11	6
Sortu Informatika	5	3	0	2	14	15	6
Aurrera Bolie	5	2	0	1	12	14	4
Artzankos Udalaiz	5	0	1	4	11	19	1
Anbotoste KT	5	0	0	5	10	27	0

Hirugarren fasea

Apirilaren 27 eta 28an hirugarren fasea hasiko da. Bigarren faseko multzo bakoitzetik lau talde sailkatuko dira eta ez da zozkatarik egingo. A multzoko lehenak, Bko bigarrenak, Dko hirugarrenak eta Eko laugarrenak osatuko dute talde bat eta arau horri jarraituz gainontzekoak osatuko dira.

109 gol

Bosgarren ihardunaldian 109 gol sartu dira guztira. Talde golegileena B izan da 31 lortuz. D taldean 28 lortu zituzten, bat gutxiago En eta 23 A taldean.

Emaitzak

A Taldea

A ti que te importa 8 - Zotz Motz 3
Txeyenex 2 - Perrahotsa 0
Argi Ibili 4 - Kamasutra 2
Hirei 0 - Okoretegi tab. 4

B Taldea

Fosforos 5 - Los Heredia 4
Orlando Pirat. 3 - Sokoakoak 2
Cer Leintz 5 - Lautherbrun. 3
Nuevo tab. 4 - AC Surcos 5

D Taldea

Arrogoi Tab 1 - Insert Coin 3
Pub people 2 - Danok Lagun 6
Adelaida haizea 8 - DKB 1
MSM Inge Int. 1 - A. Kirolak 6

E Taldea

Aurrera Bolie 1 - Sortu Inf. 2
Irati STS 2 - Trikiti 3
Betrayer 4 - Artzan. Udalaiz 4
Totem 8 - Anbotoste K.T. 3

TOTEM TALDE AIPAGARRIENA

Bigarren fasean talderen bat aipatzekotan ezin ahaztu Totem egiten ari den lana. E multzoko liderra maila bikaina erakusten dabil eta horrela jarraituz gero, faboritoen multzoan sartu beharko litzateke. Insert Coin ere ez dabil makal. Gainera inork gutxi espero zuen talde hori taularen goialdean ikustea. Gauzak benetan oker, Los Heredia taldeari jarri zaizkio. Lehen fasean lan txukuna egin zuen taldeak bigarrean porrot egin du eta




horren ondorioa txapelketan

aurrera ez egitea izan daiteke.

Bestalde dagoeneko hurrengo fasera pasatzeko aukera

barik Zotz Motz, Lautherbrunen, DKB, Artzankos Udalaiz eta Anbotoste daude.



URONDO

elektrizitatea

* Elektragaiak

* Instalazioak

* Automatismoak

* Proiektuak


* Argiztapena

* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



San Viator ikastolako Aritz Kortabarriak Unicef-ek antolatutako eta Simagok bultzatutako Gaboneta-ko postalen lehen lehiaketan hartu zuen parte. Joan den astean eskutitz bat jaso zuen bere marrazkia aukeratua izan zela esanez. Hemendik aurrera beraz Arrasatear baten marrazkia agertuko da Unicef-ek Gabonetan banatzen dituen postaletan. Zorionak Aritz.

Gipuzkoako Gimnasia erritmikako txapelketan hartuko dute parte argazkian agertzen diren gimnastek. Bergaran eta Donostian burututako txapelketetan lortu zuten txartela.

Sailkatuak honako hauek dira: Idurre Garcia, Maria Etxeberria, Miren Bragado, Janire Bolinaga, Esther Fernandez, Edurne Canas, Maite Albres, Naiara Saenz, Idoia Fernandez, Sheila Sanchez eta Elena Lanuza. Zorionak guztiei!



1.934an jaiotako kintoek bazkaria egin zuten zapatuan. Egurdiko ordubatean San Frantzisko elizan meza izan zuten hildako kintoen alde, eta ondoren bazkaria Udalpe elkartearen. Bertan 62 urteko andra-gizon ugari elkartu zen eta kontu kontari ibiltzeko aukera paregabea izan zuten. Etxera joan aurretik datorren urtean berriz biltzekotan geratu ziren.




DERMATOLOGIA • BENEREOLOGIA • MEDIKUNTZA • KIRURGIA

Cristina Garcíandia Mugika

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon M^a Lili, 2 Geral. eskubia • BERGARA • Tfnoa: 76 59 39



Gipuzkoako txapelketa Arrasaten

Arrasateko Gimnasia eritmikako partaideek Gipuzkoako txapelketara sailkatzeko hirugarren kanporaketan hartu zuten parte joan zen asteburuan. Arantzazu Zubia eta Adelaida Silvarren gidaritzapean lanean ari diren neskatok emaitza onak lortu zituzten eta finalerako sailkatzea lortu dute guztiek. Kanporaketak Donostian eta Bergaran burutu ziren. Donostian alebin mailan Iurre Garcia, Maria Etxeberria, Miren Bragado eta Janire Bólinaga aritu ziren, infantiletan Esther Fernandez eta Edurne Canas; kadetetan berriz, Maite Albes, Naiara Saenz, Idoia Fernandez eta Sheila Sanchez. Elena Lanuzak bestalde, Bergaran erakutsi behar izan zuen zer egiteko gauza zen eta honek ere finalerako txartela poltsikoratu zuen. Gipuzkoako txapelketa maiatzaren 25ean izango da Arrasaten. Hasiera batean Soraluzen egitekoa zen, baina bertakoek arazo batzuk izan zituztenez Arrasateri eskaini eta baietza eman ondoren dagoeneko hasi dira prestatzen txapelketa. Arrasateko gimnastak hasi dira entrenamendu sakonak egiten.

Zikloturisten irteera

Arrasateko zikloturistek irteera egingo dute domekan. Ibilbidea: Arrasate, Kanpazar, Elorrio, Durango, Goiuria, Mañaria, Urkiola, Otxandio, Legutiano, Eskoriatza eta Arrasate. 72 kilometro guztira. Irteera goizeko 10etan Monterrondik.

Urbina Maltzaga eta Askatuak Play Offean

Urbina Maltzagak Donostiako Askatuak taldearen kontra jokatu nahi zuen igorako play offa eta azken ihardunaldian eman diren emaitzei esker lortu da aurkaria Donostiako taldea izatea. Urbina Maltzagak Vino de Toro izan zuen aurrean. Samaniegoren mutilek galdu egin zuten 93 eta 96 baina Askatuak Señorío de Zuastiren kontra irabazi zuenez talde bien helburuak bete dira. Play Offeko lehen neurketa apirilaren 13an jokatu da Iturripen. Aste bete beranduago Donostian izango dute zita bi taldeek eta berdinketa nagusi

situko balitz berriro Josean Gaska kiroldegian neurtuko lituzkete indarrak, Askatuak kantxa faktorea alde du eta.

Arrasateko taldeak 5. tokian bukatu du lehen fasea. Jokatutako 30 neurketetatik 17 irabazi ditu eta 13 galdu. Puntuei dagokionez 2.375 lortu ditu eta 2.304 jaso. Batz besteko ona denboraldia nola hasi zen ikusita.

ESKUBALOIKOEK LEHEN MAILAN SEGI

Eskubaloit taldeak lehen mailari eusteko irabazi beharreko neurketa jokatu zuen Zarautzen kontra domekan.

Herreroren mutilek bi goleko aldeaz galdu zuten. Partidua bukatu zenean jeitsierako fasea jokatu behar zutelakoan bazeuden ere, Beti onak talde nafarrak Hormigones Vigori irabazi egin zionez, Arrasatearrek promozioa jokatu barik lehen mailari eustea lortu dute. Hauendako beraz, bukatu da denboraldia eta irailera arte ez dute neurketa ofizialik jokatu. Hala ere, entrenatzen jarraituko dutela esan du entrenatzaileak "16an berriro ekingo diogu lanari eta erritmoa ez galtzeko astean hiru bider elkartuko gara era guztietako ariketak egiteko".

Mondra-Urola derbia Atxabalpen

Hirugarren mailako Mondrak Urola taldea izango du aurrean domekan arratsaldeko 4.30etan Atxabalpen. Talde biak puntuen bila zelairatuko badira ere, arrasatearren puntu beharra askoz ere handiagoa da. Zivojeciven mutilek kale egingo balute 3. mailari eusteko ia aukera barik geratuko lirakeke. Apirilaren 14an berriz, beste derbi bat egongo da jokuan. Aurrez

aurre Elgoibar eta Mondra izango dira. Bestalde ostiralean Realak antolatzen duen nazioarteko jubenil mailako txapelketari dagokion neurketa jokatu da Atxabalpen. Real Madrid eta Gipuzkoako hainbat jokalarirekin osatutako taldeak neurtuko dituzte indarrak. Euskal talde horretan bi arrasatear izango dira, Amiano atezaina eta Lazaro jokalaria.

Internet: sareen sare erraldoia

Itxaro Zubillaga

Internet hitza egunerokoa egin da azken boladan. Mundu osoan hedatuta dagoen sare erraldoi honek leku garrantzitsua hartu du gure gizartean eta itxura guztien arabera, haizeak eramango ez duen moda izango da. Arrasateko enpresa gehienak dagoeneko lotuta daude Internet sarera eta lotu barik daudenek epe motzean Internetarekin bat egiteko asmoa azaldu dute. Baina zer da Internet delakoa?

Internet berez telefono hariaren bidez lotutako ordenagailu multzo bat da. Sare honek informazio digitalizatua bidaltzea eta jasotzea ahalbidetzen du. Ordenagailuak lotzen dituen nazioarteko sare bat da, informazioaren eta pertsonen sare izugarria. Teorian kontrol gune zentralik edo jaberik gabeko sarea dela esan daiteke.

Internet sarearen sorrera militarrei sor zaie. 60ko hamarkadaren amaieran Estatu Batuetako militarrek kezkatuta zeuden euren sare informatikoaren egiturarekin; edozein eraso eginez gero zentroa jo eta dena hona zezakeela pentsatu zuten. Horrela sare informatiko berria eraikitzeke hasi ziren lanean. Informazio orokor guztia gordetzeko gaitasuna izango zuen sarea, Arpanet izenekoa sortu zen. 70 eta 80ko urteetan, komunikazio

sistema hori Estatu Batuetako unibertsitateetan hasi zen erabiltzen. Izena aldatu eta ikasle-irakasleek euren beharretara moldatu zuten. Geroago gainontzeko unibertsitateetara zabaldu zen eta azkenean guregana ere heldu da Internet sare erraldoia.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?


Interneta erabiltzeko ordenagailua, telefonoa eta mode-

ma behar dira nahi eta nahiez. Horretaz gain, zerbitzua eskaintzen duen enpresa batekin kontratua egin beharra dago sarean sartu ahal izateko. Enpresa denek ez dute zerbitzu bera eskaintzen, bai ordea Internetera sartzeko aukera eta antzerako Softwareak. Hiru edo lau Software motakin informazio guztia jaso daiteke. Zerbitzu enpresa guztiek ordaintzeko modu desberdina eskaintzen dute datuen eta denboraren ara-

bera. Hala ere mugarik gabeko zerbitzuak ere egon badaude. Gaur egun 3.500 pezeta eta 4.000 pezeta artean egon daiteke enpresa horiei hileror ordaindu beharrekoa. Gastu hori dena dela, ez da erabiltzaileak duen bakarra. Telefonoa ere ordaindu behar da. Hasieran telefonoaren gastua gehiegizkoa bazen ere, urtariletik aurrera Telefonikak INFOVIA sistema atera du. Infoviaren bidez 055 zenbakira deitu eta deia edonora izanik ere, New York edo Gatzaga esatebaterako, lokala balitz moduan kobratzen du telefonikak: 136 pezeta orduko eta 8etatik aurrera 106 pezeta.

Internet bestalde komunikazio sistema deszentralizatua da eta ez dago komunikazio guztia kontrolatzen duen puntu jakin bat. Ordenagailu batetik bestera informazioa edo mezu bat bidali nahi denean, mezu hori pake tetan banatzen da. Pakete bakoitzak mezua bidali gura zaion ordenagailuaren helbidea izango du. Pakete hauek inguruko ordenagailu nagusi bati bidaltzen zaizkio, agindutako helbidera iristeko biderik egokiena zein den aztertu eta informazioa bidal dezan. Datuak, irudiak, argazkiak eta soinuak denerik jaso daiteke Interneten bidez. Hala ere ez da ahaztu behar mezu horiek jasotzeko sistema zehatz batzuk dardela.

Norberak edo enpresa



Ordenagailua erabiliz mundu osoa gertuago.

batek Interneten bere informazioa sartu nahi badu bada-goa beste bide ba. Interneten sartzeara ahalbidetzen duten zerbitzu enpresak atear zabaltzeaz gain, aparte ordainduta beste aukera bat eskaintzen dute eta. Orri berezi batzuk saltzen dituzte norberak nahi duen informazioa sartzeko. Gaur egun lana aurkitzeko eta publizitatea egiteko modan jarri da orri horiek erostea. Behin informazioa sartuta, zerbitzu enpresak arduratzen dira norberaren orria eskaintzen.

Internetera sartzeara ere oso samurra da, ordenagailuaren sagua zapaltzea besterik ez. Sagua mugitzea bezain erraza da Internet sarean murgiltzea. Gainera modema izanez gero, edozein ordenagailura konektatu daiteke.

SISTEMA DESBERDINAK

Internet nolabait esateko sarean sarea da, guztien ama. Baina sare handi horretara heltzeko hainbat sistema dago. Guztien artean erabilgarriena E-mail da, posta elektronikoa. E-mailekin berehala jarri daiteke munduko edozein tokirekin harremanetan eta berehala erantzuna jasotzeko aukera dago. World Wide Web sistema ere gero eta gehiago erabiltzen da. Informazio orri edo guneak dira. Weben bidez erabiltzaileak testoa, grafikoak, bideoa, soinua har dezake. Gopherrek berriz, informazioa bilatzen laguntzen du. Aipatutakoak Internetera sartzeko dauden sistema bakar batzuk dira. Nolanahi ere, mundu koropilatsu horretan era guztietako sarbideak aurki daitezke. Hori dela eta, sartzeko denak jakin behar du zer bilatu nahi duen, nola eta zertarako. Bestela Internetera erakuslehi hutsa bihurtu daiteke gauzak garbi ez duen erabiltzaileentzat.

SISTEMA BEREZIA

Ikerlan ikerkuntza enpresak konekzioa aurretik egin bazuen ere, urtarrilean hasi zen Internetarekin lanean. Enpresa honek Eskola Politeknikoarekin batera Internetera sartzeko aipatutako sistema izateaz gain, badu beste bat. Ikerlanen antena bat dago mikroonda sistema baten bitartez eta hainbat mendi zeharkatu ondoren Internetera doana zuzenean. Eusko Jaurlaritzak zentru teknologiko eta unibertsitate desberdinak elkarrekin lotzeko abian jarri zuen kable bidezko komunikazio sarea. Hauek beraz, ez dute Infovia edo zer-

bitzu enpresei ordaindu beharrik. Euren lana Euskoen enpresak kontrolatzen du eta berari ordaindu behar diote.

MCC ZERBITZU ENPRESA BIHURTZEKOTAN.

Apiriletik aurrera berriz, MCCk World Wide Web zerbitzua eskainiko die Korporazioan dauden enpresei. 24 orduko zerbitzua izango da eta 100 orrialdetik gora informazio jaso ahal izango da. Une honetan MCC dokumentazio eta ikusentzuteko fondoak prestatzen dabil euskaraz, ingelesez eta gazteleraz informazioa eskaintzeko. Intranet dei-

tuko den zerbitzuak korporazioan dauden enpresei Internetera joateko bidea zabalduko die.

Enpresetan ziztuaren abiadura hedatzen ari den komunikazio sistema ohartu barik gure etxeetan barnerratu da denboraren poderioz. Adituen berbetan etorkizuneko sarrea izango da Internet eta une honetan gauza zehatz batzutarako erabiltzen bada ere, laster edozein erosteta egin, bidaia prestatu edo bankuko transferentzia bat egiteko balioko du. EEBBetan dagoeneko etxe guztiak daude Internetera konektatuta.

Jakin beharreko hiztegia eta sistemak

• **Modem** - Internetekin lotzen duen tresna. Ordenadorea telefonoarekin lotzen du.

• **Nabigazioa** - Interneten sartzeko duenak nabigatu egiten du. Webeko gune bakoitzean heldulekuak aurkitzen ditu, salto egin eta beste gune batera joateko. Nora joan nahi duzun jakitea ezinbestekoa da, bestela noraezean galduta ibil zaitezke.

• **Netscape** - Nabigatzeko programa erraz eta erabiliena. Programa honi esker ordenadore sagua erabilia berehala sar zaitezke Interneten.

• **BBS** - Kuota bat ordaindu ondoren lortzen den zerbitzua. Zerbitzu horrek informazioa sartzeara ahalbidetzen du eta beste batzuk berehala irakur dezakete.

• **IRC** - Aldi bereko elkarrizketa munduko beste edozein pertsona talderekin. Telefonoz bezala baina idatziz. Zuk idatzitako lerroak konektatutako beste guztiek aldi berean irakurri ahal izango dituzte eta alderantziz.

• **Newsgroup** - Eztabaida edo konferentzia taldeak dira. Iritziak bidali ditzakezu eta taldera lotutako beste guztiek jasoko dute.

• **E-mail** - posta elektronikoa zerbitzua. Beharbada Interneteko zerbitzu erabilgarriena eta samurrena. Mezu bat bidaltzen da edonora helbide elektronikoa bidez baliatuz eta hartzaileek segituan har dezakete mezua eta bide batez erantzuna eman. Erosoa, merkea eta dokumentuak artxibatze-ko primerakoa.

• **WWW (World Wide Web)**. Interneteko atalik bisitatuena. Informazio orri edo guneak dira eta milaka daude. Internetera konektatuta dagoen edonork sor ditzake Webeko orri propioak eta sarean geratzen dira nahi duenak kontsultatzeko. Web-en bidez erabiltzaileak testuak, grafikoak, bideoa, soinua edo argazkiak har ditzakete baina horretarako Mosaic edo inguru grafikoari lotutako programa behar da.

• **Mosaic** - Inguru grafikoaren aplikazio batzuk fitxeroak bisualizatzeko. Testuak, grafikoak, argazkiak soinua.. dena bisualizatzen du. Mosaic-ek bideoak, videoclipak edo edozein modazko aldizkari ikus-terko aukera ematen ditu.

• **Gopher** - Informazioa aurkitzeko baliogarria. Mundu osoko ordenagailuetan dagoen informazioa bilatzeko lagungarria. Gopher-en sartzeko aireportu baten egoitea dirudi, Zurich, Stuttgart, Ohion edozein lekutan buka dezakezu.

• **FTP** - Ordenagailu bat beste batekin elkar lotzen du. Fitxeroak irakurtzen utzi ordez kopiatzeko aukera ematen ditu. Datu, programa edo fitxero guztiak pasa daitezke ordenagailu batetik bestera.

Arizmendiarrietari buruzko bideoa egitekotan Ikasbiden

Kooperatibismoaren sortzaile izan zen On Jose Maria Arizmendiarreren pentsakerari eta bizitzari buruzko bideo bategin nahi du MCCk. Hori dela eta, dokumentazio bila hasi dira ideiareen sortzaileak.

Korporazioak makina bat liburu argitaratu du kooperatibismoaren inguruan, baina orain ikus-entzuteko medioei eutsi nahi diote helburu berbera garatzen jarraitzeko. "Idatzizkoa alde batera utzi barik, ikus-entzuteko medioak erabiltzen hastea pentsatu genuen orain denbora bat. Duela bi urte hiru elkarrizketez osatutako bideo sorta bat atera genuen eta aurturten MCC eta Lagun Arori buruzko bi bideo egin ditugu. Orain berri, On Jose Maria Arizmendiarrera hizpide izango duen bideo sakon bat egitea nahi dugu" dio Jose Maria Larrañagak, egitasmoaren arduradunak.

MCCk aspaldi zuen bideo hori egiteko gogoia baina irudizko dokumentazio eskasiak gaur arte atzerarazi du proiektua. Jose Maria Larrañagak dioenez, On Jose Mariari buruzko argazki asko dago, baita filmetxo bat ere, baina hala ere ez da nahikoa. Hori dela eta, herriarengana zuzendu eta On Jose Maria Arizmendiarreren garaiko bideo edo argazkiak dituztenei eskaera egin diete. Gutxi gorabehera ordu erdiko



Bideoan Arizmendiarreren pentsakera isladatu nahi dute.

iraupena izango duen bideoak, Arizmendiarreren pentsakera, mezua eta bizitzaz informatzeaz gain, bere garaiko giroa ere jaso nahi du.

J. M. Larrañagak azaltzen duenez, On Jose Maria hemen ez da oso ezaguna beraz, bideo horrekin bere pentsakera ezagutzeko jakingura sortzea nahi lukete. Atzerrian berri, oso ezaguna ei da Arizmendiarrera, "Ipar Ameriketako unibertsitate batzuetan On Jose Mariak Marxek baino interes gehiago sortzen du. Bestalde, hona etortzen diren txinatarrek Arizmendiarrera Mao baino handiagoa dela esaten didate" dio

Larrañagak.

Eskoriatzako Irakasle Eskolan ekoiztuko da bideoa eta dagoeneko, hasi dira Arizmendiarrerekin zerikusia izan zuten inguruko leku batzuetako grabaketak egiten. Euskal Telebistak bestalde, gerra garaiko filme batzuk utziko dizkie. Arizmendiarreren eta Arrasateko 1940 eta 1970 bitarteko argazki edo filmerik duenak Arrasateko Pressen nahiz Otaloran utz ditzake. Argazki eta filme origilanak berriro itzuliko zaizkie jabeei, eta gainera, bideoaren kopia bat oparituko zaie oroigarri gisa. Bideoa urrirako amaituta egotea

espero dute.

400. ZENBAKIA

Hile honetan MCCk kaleratzen duen TU Lankide aldizkariak 400. alea argitaratu du. Aldizkaria On Jose Maria Arizmendiarretak sortu zuen eta lehenengo zenbakia 1960ko irailean kaleratu zen. 35 urte pasatu dira ordutik eta asko aldatu da hilabetekaria, hasieran, Eskola Politeknikoan banatzen zen orritxo bat baino ez zen eta.

TU Lankidek 7.500 aleko tirada dauka eta aldizkariaren %75a erdaraz idatzita dago. Aldizkaria Japon, Korea, Txina eta munduko beste hainbat lekura ere heltzen da. Izan ere, Larrañagak dioenez, Arizmendiarreren filosofia leku askotan da ezaguna eta eredu. Hori dela eta, EBBBarek aldizkaria ingelesez idazteko eskatu diete. MCCn Internet sistema jarri berri dutenez, aldizkaria ingelesez idatzi ahal izateko proiektua lantzen hasiko direla dio Jose Maria Larrañagak.

TU Lankideren 400. zenbakia berezia dela esan behar da. Hilabetekariak dituen 55 orrialdeetatik, 22 aldizkariari berari buruzkoak dira. Orrialde horietan Javier Marcosek, Jose Maria Ormaetxeak, Juan Leibarrek, Jesus Gintok eta Jose Maria Larrañagak idatzitako artikulua sakonak irakurri daitezke. Horrez gain, ohiko gaiak.

Bideoarekin bultzatzaileek Arizmendiarreren pentsakera ezagutzeko jakingura sortzea nahiko lukete

 **MARKO-JARTZEAK**
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

Z E R N A H I A G O ?

Maria Murillo

“Xalo” ileapaindegikoa

- Zenbat pertsona orrazten duzu egunean? Zazpi bat.
- Moztu duzu sekula zeure ilea? Ez.
- Zein orrazkera eramaten da orain? Ez motza eta ez luzea. Kapak egitea eskatzen dute gehienek.
- Zenbatero aldatzen duzu orrazkeraz? Askotan.
- Tinterik erabiltzen duzu? Bai.
- Zer moduz zaintzen dute ilea arrasatearrek? Gutxi zaintzen dute.
- Zenbatean behin garbitzen duzu ilea? Astean hiru bider.
- Aktore bat? Richard Gere.
- Pelikula bat? “Magnolias de acero”.
- Aste Santuan nora zoaz? Extremadurara.
- Kartetan jokatzeko duzu? Ez, oso txarra naiz.
- Zapatak takoidunak ala takoi gabekoak? Takoi gabekoak.



- Astean zenbat bider joaten zara Maxira? Astean behin.
- Postre bat? Gaztazko tarta.
- Dutxan kantatzen duzu? Ez, ez dut denborarik izaten eta.
- Erabiltzen duzu betaurrekorik? Ez.
- Erretzen duzu? Bai.
- Zenbat? Egunean pakete bat.
- Ikusi zenuen Rociitoren ezkontza? Ez.
- Praxak ala gonak? Praxak.
- Baduzu ordenagailurik etxean? Ez.
- Gozozalea zara? Bai.
- Egin duzu inoiz dietarik? Ez.
- Bizikletan ibiltzen zara? Ez.
- Barruko arropa txuria ala beltza? Txuria.
- Jarraitzen dituzu kirol emaitzak? Ez baina kiniela egiten dut.



Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE




ste Santua gain gainean dagoela eta, gaurkoan eliza giroko argazki batekin gatzoz Fotozaharraren txoko honetara.

Don Justino abadeak ateratako argazkia da, 1956ko udaberrian hain zuzen ere.

Arrasateko San Juan Bautista parrokiako elizmutiletariko batzuk ageri dira bertan, galazko uniforme jantzita, ospakizun handietarako erabiltzen zena, Aste Santuko prozesiñuetan besteak beste.

Goitik behera eta ezke-

rretik eskumara, protagonistak honako hauek dira: Jose Luis Martinez, Sebastian Txintxurreta eta Juan Luis Kortabarria. Eseritakoak, berriz, ordena berean, Egidazu, Julian Llodio eta Angel Txintxurreta.



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
 ESTOMBA
 GOMEZ
 MURGIONDO
 OTALORA
 RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18




EKOMOBIL

BERRIA



BERRIA



ZALDISPE 2.
Tfnok: 79 50 71
- 79 97 12

Auto ia berriak!
Km. 0!
50 baino gehiago!

V.O. Feria



100.000 pta.tik aurrera!
Diesel!
Casolina!

Anirilaren 15etik 29ra arte

Mondeo


"Teknologia aurreratuenak eta edertasunak bat egiten dutenean sortzen da..."

Badaude teknologia aurreratuenak bakarrik eskain ditzakeen plazerak. Mondeo TurboTec serie berria gidatzearen modukoak. Neurrira egindako motorea gidatzea eta gozatzea bat izan daitezten. Zeharkako injekzioz 1.8 litro Intercoolerraz. 88 zaldi: 178 Nm minutuko 2.000 revoluziora. Ekologia arloan araudi zorrotzea gainditzen duen motorea. Mondeo Diesel TurboTec berria martxan jarri bezain

pronto sentsazio berriak aurkitzen ditugu. Mondeo baten segurtasun osoak babesten gaitu: Airbag-a seriean, alboetako esfortzuanizdun babesgailuak, chasis tinkoa, direkzioaren zutabe indartua, gerriko aurretenkatuak, ezarleku labangaitzak... Mondeo Diesel TurboTec serie berriak zure eskura jartzen ditu plazer berriak. Prestazioak. Segurtasunak. Ekonomiak. Baina batez ere, Mondeo bat gidatzearen plazer.

**...Mondeo
Diesel
TurboTec
serie
berria.**

*Jar zaitetz Mondeo baten inolako konpromezu barik.
Gusto handiz hartuko zaitugu.*



MUGARRI
Ford Banatzaile Ofiziala.

Araba Etorbidea, z/g ARRASATE
Tfnoa: 79 07 44

